


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2003ko IRAILA

Euskal AEko industri jarduera %1,5 hazi zen 2003ko irailean

Datu horiekin, urteko lehenengo hiru hiruhilekoetan, industri bilakaerak %1,2ko hazkundera metatu du.

2003ko irailean, %1,5 hazi zen balio absolututan Euskal AEko industri jarduera, 2002ko hil beraren aldean, EUSTATEk landutako datuen arabera. Lan-egutegiaren balio homogeneousotan, urte arteko aldakuntza %2,4 jaitsi zen, irailak aurten lanegun bat gehiago izan duelako iaz baino. Urteko lehenengo bederatzi hilabeteetako hazkunde-tasa metatuak, aurreko urteko aldi beraren aldean, %1,2ko hazkundera izan du balio absolutuetan neurtuta, eta %0,8koa lan-egutegiaren balio homogeneousotan neurtuta.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1997-2003



Iturria: EUSTAT

2003ko irailean, urte arteko aldakuntzarik positiboak, balio absolututan, sektore hauei egokitu zaizkie: petrolio-fintzea (%18,2), zurgintza (%11,7), material elektrikoa (%10,1), energia elektrikoa, gasa eta ura (%6,0) eta elikagai-industria (%5,5) arloei, besteak beste.

Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan dituzte: ehungintza eta jantzigintza (%-9,2), garraio-materiala (%-7,2), larruaren eta oinetakoen industria (%-6,0), ez-metalezko industria (%-1,5) eta makineria (%-1,5) arloek, batik bat.

Ondasunen helburu ekonomikoka, 2003ko irailean, igo egin dira bitarteko ondasunen (%1,6) eta kontsumo-ondasunen (%1,4) urte arteko tasak, baina jaitsi egin da ekipo-ondasunena (%-3,4).

Urteko lehenengo bederatzi hilabeteetan, hazkunde metatu handienak, balio absolututan, sektore hauei egokitu zaizkie: petrolio finntzea (%20,5), kautxua eta plastikoa (%6,4), material elektrikoa (%4,9), ehungintza eta jantzigintza (%3,9), eta energia elektrikoa, gasa eta ura (%2,7) arloei, besteak beste.

Tasa metaturik negatiboenak, berriz, honako hauek izan dituzte: larruaren eta oinetakoen industria (%-12,7), bestelako manufakturak (%-4,8), papera, argitalpena eta arte grafikoak (%-1,4) eta makineria (%-1,2) arloek, batik bat.

Lehenengo bederatzi hilabeteetako aldakuntza metatuak hazkundera izan du bitarteko ondasunetan (%2,0), baina kontsumo-ondasunak eta ekipo-ondasunak %2,7 eta %0,9 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Lurralde historikoka, iraileko indizean urte arteko hazkundeak izan dira Gipuzkoan (%3,8) eta Bizkaian (%0,3), baina indizea %0,8 jaitsi da Arabako lurralde historikoan. Urteko lehenengo bederatzi hilabeteetan, aldeak txikiagoak dira Bizkaia eta Gipuzkoaren artean, %1,6 eta %1,5eko hazkunde metatuak izan baitituzte, hurrenez hurren. Arabak, oster, jaitsiera arina izan du aurreko urteko aldi beraren aldean, %0,4koa, hain zuzen ere.

Taula: 2003ko IRAILA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%).

Kontzeptua	Aurreko urteko hil beraren aldean		2002ko urtarril-iraileko tasa metatua		2003ko urtarril-iraileko tasa metatua	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	1,5	-2,4	-1,7	-1,5	1,2	0,8
Araba	-0,8	-4,8	-0,5	-0,2	-0,4	-0,8
Bizkaia	0,3	-3,1	-1,6	-1,3	1,6	1,3
Gipuzkoa	3,8	-0,3	-2,5	-2,3	1,5	1,0
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE						
Bitarteko ondasunak	1,4	-2,1	-0,9	-0,7	2,0	1,7
Kontsumo-ondasunak	1,6	-2,4	0,9	1,3	-2,7	-3,1
Ekipo-ondasunak	-3,4	-7,8	-3,5	-3,3	-0,9	-1,4

(*) Lanegunez zuzendua.

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso

Tlf:+34-945-01 75 14 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es